

EUSKAL IKASKETETAKO GRADUA, 2020-2021 IKASTURTEA

‘Tira’ markatzailearen deskribapena

Egilea: Mikel Natxiondo Etxebarria

Tutorea: Fernando García Murga

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 14an

Laburpena

Lan honen helburua euskarazko *tira* markatzailearen deskribapena egitea izan da. Horretarako, lehendabizi, diskurtso markatzaileak zer diren ikusi eta mezuaren interpretazioan duten eraginaren araberrako multzoetan sailkatu ditugu. Horien artean, aztergai dugun *tira* partikula berbaldi markatzaileen artean dagoela ikusi dugu. Gainera, gehienbat ahozketasunari lotutako erabilera duela ikusi dugu, eta behin baino gehiagotan nabarmendu dugu partikula honen esanahia ez dela denotatiboa, prozedurazkoa baizik; hau da, diskurtsoa antolatu eta diskurtsoaren interpretazioan eragitea da bere funtzioa.

Jarraian, deskribapen lanari ekin diogu eta, lan hori aurrera eramateko, gaztelaniazko lan batean oinarritu gara; hain zuzen ere, *Gramática descriptiva de la lengua española* lanean argitaratutako Martín Zorraquinoren eta Portolés Lázaroren *Los marcadores del discurso* atalean. Bertan egindako gaztelaniazko *bueno* eta *bien* markatzaileen deskribapenez baliatu gara *tira* markatzaileak izan ditzakeen funtzioak aztertzeke, eta horiek oso ugariak izan daitezkeela ikusi dugu. Izan ere, horien barnean hiru funtzio nagusi nabarmendu ditugun arren -funtzio deontiko modala, funtzio besteratzalea edo aldatzalea eta funtzio metadiskurtsiboa-, begi-bistan geratu da partikula hau erabilera jakin batera mugatzea oso zaila dela, bere erabilera aniztasuna dela eta, sarritan funtzio horien arteko muga oso lausoa izango baita.

Funtzio horien arteko lehenari dagokionez, *tira* markatzailea zuzentzeko esaldien aurrean hizlariak solaskidearen proposamena, eskaria edo agindua onartu ala alboratzeko erabiltzen dela ikusi dugu. Gainera, kortesia positiboa indartzen duela ere ikusi dugu, solaskideak hizlariarekiko duen irudi positiboa mantentzeko. Bigarrenik, funtzio besteratzale edo aldatzaleari dagokionez, *tira* markatzaileak hizlariak solaskidearekiko duen jarrera zein ikuspegia markatzeko duen gaitasunaz hitz egin dugu. Azkenik, markatzaile honek funtzio metadiskurtsiboa betetzen duenean elkarriketa egituraketari egiten dion ekarpena aztertu dugu, bere barneko erabilera anitzei arreta jarritz.

Bukatzeko, interesgarria iruditu zaigu markatzaile honek hizketa-ekintza desberdinetarako duen moldagarritasuna aztertzea eta, horretarako, zenbait ilokuzio-ekintzaren aurrean nola erantzuten duen ikusi dugu. Zehazki, adierazpena, proposamena, ohartarazpena, agindua, barkamena eskatzea eta zoriontzea izan dira aztertu ditugunak eta, kasurik gehienetan, *tira*-ren erabilera balekotzat jo dezakegula ikusi dugu. Hala ere, horretarako testuinguruak duen garrantzia handia dela ondorioztatu ahal izan dugu, sarritan markatzaile hau erabili ahal izateko beharrezkoa izango baita nolabaiteko aurrekariren bat egotea.

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| 0. Sarrera | 3 |
| 1. Diskurtso markatzaileak | 5 |
| 2. 'Tira' markatzailearen deskribapena | 7 |
| 2.1. Funtzio modal deontikoa | 8 |
| 2.2. Funtzio besteratzaila edo alteratzailea | 14 |
| 2.3. Funtzio metadiskurtsiboa | 18 |
| 3. Hizketa-ekintzak | 26 |
| 4. Ondorioak | 30 |
| 5. Bibliografia | 32 |

0. Sarrera

Lan honen helburu nagusia *tira* partikularen deskribapena egitea izango da. Esan beharra dago orain arte ez dela partikula honen azterketa sakonik egin eta, beraz, abiatzera goazen lanerako euskarazko euskarri gutxi izan ditugula. Gainera, gaur egun arte testu-antolatzaileen zein diskurtso markatzaileen inguruan euskaraz egin diren ikerketak ere nahiko urriak direla esan dezakegu, gero eta gehiago baldin badaude ere. Horregatik, *tira* markatzailearen erabilerak ahalik eta modu zehatzenean identifikatzeko asmoz, lan honetarako gaztelerazko lan bat oinarri hartzea erabaki dugu, hizkuntza horretan gehiago sakondu baita arlo horretan. Hain zuzen, *Gramática descriptiva de la lengua española* lanean argitaratutako Martín Zorraquinoren eta Portolés Lázaroren *Los marcadores del discurso* atala baliatuko dugu, bertan euskarazko *tira* partikularen parekoak izan daitezkeen gaztelerazko *bueno* eta *bien* partikulen deskribapena egin baitute.

Lanari ekiteko, lehendabizi, diskurtso markatzaileen azalpen laburra emango dugu, landuko dugun jakintza arloa zehazki zein den argitzeko eta erabiliko dugun terminologia zein izango den zehazteko. Bertan, diskurtso markatzaileen barneko multzoak aurkeztuko ditugu labur-labur eta arreta berezia eskainiko diogu berbaldi markatzaileen atalari, bere barnean kokatuko baitugu aztergai dugun *tira* partikula. Jarraian, deskribapen lanari ekingo diogu, arestian esan bezala gaztelerazko azterketatik abiatuz, eta *tira* markatzaileak izan ditzakeen funtzioak adibideen laguntzaz azaltzeko saiakera egingo dugu. Arlo horretan, aipamen berezia merezi du partikula horrek duen funtzio aniztasunak, ikusiko dugunez, testuinguru mota ugarriz moldatzeko gaitasuna baitauka *tira* partikulak. Hain zuzen, horregatik, deskribapenaren atalaren amaieran, markatzaile horrek hizketa-ekintza desberdinetara moldatzeko daukan gaitasuna aztertuko dugu, aparteko atal batean. Azkenik, lanari amaiera emateko, ateratako ondorio nagusiak bilduko ditugu.

1. Diskurtso markatzaileak

Hasteko, beharrezkoa da zehaztea diskurtso markatzaileei buruz ari garenean, zehazki, zertaz ari garen. Honi dagokionez, gai hau euskaraz zein gaztelaniaz aztertu duten autoreen artean desadostasunak daude terminologiari, barnebiltzen dituzten elementuei zein elementu horiek ezaugarritzeko erabili beharreko irizpideen inguruan (Garcia-Azkoaga, 2013). Lan honen helburua horretan sakontzea ez denez, orain arte erabiltzen ari garen *diskurtso markatzaile* terminoa da erabiliko duguna, eta, batez ere, aipatu dugun Zorraquinok eta Portolésesek (1999) egindako azterketa izango dugu oinarri. Bi autore horien arabera, aztergai ditugun elementu hauek hizkuntza-unitate aldaezinak dira eta perpausaren predikazioan ez dute funtzio sintaktikorik betetzen¹. Partikula hauek elkarrizketa baten testuinguruaren dinamika bideratzen dute; hau da, hitz egitean, elkarrizketa aurrera doan heinean, testuingurua aldatu egiten da eta informazio berria sortzen da. Informazio hori guztia ez dugu, nolabait esateko, zaku berean sartzen; testuingurua oso konplexua da eta partikula hauek informazioa testuinguruaren alde batera ala bestera bideratzen dute, beren ezaugarri morfosintaktiko zein pragmatikoen arabera. Beraz, erabiltzen den markatzailearen arabera, hizlariak esandakotik ondorio jakin batzuk aterako dira: delako ideia bat beste ideia baten ondorioa izatea, ideiak aurrez aurre jartzea, erabateko adostasunik eza adieraztea, etab. Hortaz, diskurtso markatzaileek ez dute errealitate bat adierazten eta, horregatik, esan dezakegu ez daukatela esanahi denotatiborik.; beren esanahia prozedurazko esanahia da. Hau da, esanahi kontzeptuala duten esapideek edo hizkuntza elementuek (aditzak, izenak, izenondoak...) adierazten dutena modu jakin batean prozesatzea ahalbidetzen dute; nolabait, diskurtsoa antolatzen dute. Horren haritik, Garcia-Azkoagak (2013) dioenez, diskurtso markatzailea enuntziatuaren interpretazio egokia egiten laguntzen digun elementua da, eta Martíren (2008) esanetan, markatzaileak prozedurazko zeinuak dira mezuak interpretatzeko prozesuan eragiten dutelako.

Emandako definizioa zehatz samarra baldin bada ere, aurki ditzakegun diskurtso markatzaileak askotarikoak dira betetzen duten funtzioari dagokionez. Ondorioz, horiek

¹ Oro har, diskurtso markatzaileak ez dira predikatuak izan ohi; hau da, ez dute argumenturik hartzen emaitza bat emateko, eta, beraz, egitura sintaktiko estandarretan aurkitzen dugun predikatu-argumentu erlazioaren eskematik kanpo daude. Adibidez, predikatu estandarra den ‘erosi’ aditza ‘Ane’ eta ‘liburua’ argumentuekin batu dezakegu: ‘Anek liburua erosi du’. Batura horrek ematen duen emaitza egia balorezkoa da (egiazkoa/faltsua).

sailkatzeko egindako saiakerak ere ugariak izan dira, irizpide desberdinen arabekoak. Hemen ez ditugu saiakera horiek guztiak ikusiko, eta Zorraquinok eta Portolések (1999) proposatutakoa aurkeztuko dugu. Autore horiek prozesamendurako jarraibideen arabera sailkatzen dituzte diskurtso markatzaileak. Horretarako, esandakoaren interpretazioa egin behar duen pertsonari zuzendutako zenbait preskripzio edo agindutan oinarritzen da aipatu berri dugun prozedurazko esanahia. Hau da, markatzaile hauen bidez, mezua nola interpretatu edo prozesatu behar duen zehazten zaio hartzaileari. Irizpide horren arabera, honakoak dira diskurtso markatzaileen barneko sailak, bakoitza bere azpi-sailekin: informazioaren egituratzaileak, lokailuak, birformulatzaileak, operatzaile argudiozkoak eta berbaldi markatzaileak.

Bost sail horiek labur-labur azaltzen hasteko, lehendabizi esango dugu informazioaren egituratzaileek diskurtsoetako informazio-antolaketa erregulatzea ahalbidetzen dutela, eta, diskurtsoaren barneko zenbait zati erlazionatzen badituzte ere, ez dute esanahi argumentatzaileerik. Bigarrenik, lokailuek diskurtsoaren zati bat beste batekin lotzen dute semantikoki nahiz pragmatikoki eta, lokailuaren esanahiaren arabera, instrukzio jakin batzuk emango ditu lotura horretatik ondorio bat edo beste ateratzeko. Hirugarrenik, birformulatzaileek, hizlariak berak aurretik esandako diskurtso zati baten ostean, diskurtso zati hori beste modu batean formulatzeari bide ematen diote. Laugarrenik, operatzaile argudiozkoek beren eraginpean dagoen diskurtso zatiaren aukera diskurtsiboak baldintzatzen dituzte, baina ez da nahitaezkoa izango aurreko diskurtso zati batekin erlazionatzea. Azkenik, berbaldi markatzaileek elkarrizketa bateko kideen arteko harremana adierazten dute eta kide horiek esandakoaren inguruan duten jarrera zehazten dute.

Lan honetan aztergai dugun *tira* partikula berbaldi markatzaileen azken sail horretan sartuko litzateke Zorraquinok eta Portolések egindako banaketa aintzat harturik. Dena den, guri dagokigun euskarazko partikularen deskribapen zehatza egiteko orduan ikusiko dugu bere erabilera askotarikoa izan daitekeela elkarrizketa testuinguruaren arabera eta, ondorioz, berbaldi markatzaileen artean ere hainbat funtzio edo erabilera bete ditzakeela.

2. 'Tira' partikularen deskribapena

Ezer baino lehen, aipatu beharra dago *tira* partikula ahozkoatasunarekin zuzenean lotutako partikula dela eta, batez ere, erregistro ez formalean erabili ohi dela. Beraz, nekez aurkituko dugu idatzizko testuetan, ahozko hizkuntza erreproduzitzen duten idatziak baldin ez badira, bederen.

Esan dugunez, diskurtso markatzaileen artean, berbaldi markatzaile deiturikoen multzoan aurkituko dugu *tira* partikula, eta, beraz, bere erabilera deskribatzeko atal horretan sakondu beharko dugu. Horretarako, Zorraquinoren eta Portolésen (1999) lana oinarri izanik, bertan gaztelaniazko *bueno* eta *bien* markatzaileei esleitzen zaizkien erabilerak aztertu eta beraiekin alderatuko dugu euskarazko *tira* markatzailea. Dena den, aipatu beharra dago, kasuren batean, markatzaile hori beharrean besteren bat erabiltzen dela ikusiko dugula. Hortaz, zehatzagoak izateko, gaztelerazko *bueno* eta *bien* partikulek euskaraz hartzen dituzten ordainak aztertuko ditugu; gehienetan, *tira*, baina, kasuan kasu, baita besteren bat ere. Horiek, ordea, erabilera bertsuak dituzte sarritan eta, beraz, *tira*-ren eta antzeko erabilera duen euskarazko beste partikularen baten artean alde nabaria dagoenean baino ez diegu erreferentzia egingo bigarren horiei.

Berbaldi markatzaileen barnean, goian aipatutako partikulei zenbait funtzio diskurtsibo esleitzen dizkiete Zorraquinok eta Portolések eta guk horiek mahaigaineratu eta azalduko ditugu hemen. Honakoak dira hiru funtzio edo erabilera horiek: funtzio deontiko modala, funtzio besteratzailerak edo aldatzailerak eta funtzio metadiskurtsiboa. Ikusiko dugunez, esku artean ditugun markatzaile hauen ezaugarri bereizgarrietako bat funtzionalitate aniztasuna da, testuinguruaren arabera erabilera bat edo beste izan baitezakete. Gainera, aipatu berri ditugun funtzioen arteko muga lausoa izan daiteke sarri, eta markatzaile hauek funtzio batetik bestera dantzan dabiltzala irudituko zaigu batzuetan.

Azkenik, esan beharra dago elkarrizketa batean, mezua ulertzera bideratutako funtzio informatzaileaz gain, funtzio interaktiboa ere aurkituko dugula, solaskideari zuzendurikoa. Aztertuko dugunez, berbaldi markatzaileetan artean ohikoa den funtzio horri esker elkarrizketaren barneko hainbat ekintza ulertzen, bideratzen edota adierazten ditugu: mezua ulertu izana, gai edo txanda aldaketa, hitz egiteko txanda hartzea,

adostasuna edo desadostasuna erakustea... Hortaz, aipatutako hiru funtzioak aztertu eta beren baitan euskarak zein gaztelaniak dituzten formak azaltzeari ekingo diogu jarraian.

2.1. Funtzio modal deontikoa

Martin J. Endley-en esanetan, modalitateak hiztunak deskribatzen duen egoerarekiko duen jarrera islatzen du (2010). Bere barnean zenbait modalitate mota daude eta horietako bat da deontikoa. Zorraquinok eta Portolésesek diotenez, funtzio hori betetzen duten markatzaileak esaldi zuzentzekoen² aurrean erabili ohi ditu hizlariak, solaskideak eginiko eskaintza, proposamen, ebaluazio bat, etab. onartzeko zein uko egiteko. Solaskideak adierazitakoaren interpretazioa egiten du hizlariak, eta markatzaile deontikoaren bitartez horren inguruko aldeko edo kontrako erantzuna ematen dio. Beraz, mintzakidearekin kooperazio estrategiak ezartzeko balio dute markatzaile mota hauek; berak esandakoarekin edo testuinguru komunikatiboak aditzera emandakoarekin bat egiten dugula adierazten dute, hitz egiten duenaren irudi edo kortesia positiboa indartzen dute eta, era berean, entzulearen irudi negatiboa markatzen dute³.

Funtzio honen barruan, gaztelaniaz *bueno* eta *bien* partikula biak aurki ditzakegu. Zorraquinok eta Portolésesek diotenez, *bien* arteko aldeari erreparatuz, lehenak gramatikalizazio maila handiagoa, adierazpen-ñabardura gehiago eta zentzu edo erabilera anitzagoak ditu, eta funtzio hau betetzeko gehiagotan erabiltzen da bigarrena baino. Horrez gain, *bueno*-k adostasun maila baxuagoa adierazten du *bien*-ek baino, eta nolabaiteko amore emate kutsua izan dezake. Gainera, *bueno*-k ez du gradazio edo mailaketarik onartzen eta *bien*-en kasuan ohikoa izaten da; horrek erakusten digu, esan berri dugunez, lehenengo partikula gramatikalizatuago dagoela bigarrena baino:

² Aparteko atal batean landuko dugu 'tira' markatzailea hizketa-ekintza desberdinetan erabiltzeko aukera.

³ Kortesia positiboaren funtsa hizlariaren irudi positiboa indartzean datza; hau da, hizlariak bere ekintzen edota hitzen onarpena lortu nahi du solaskideen aldetik. Horretarako, Brownek eta Levinsonek (1978) diotenez, solaskideekiko adostasuna adierazten duten edo desadostasuna leuntzen duten zenbait elementu linguistiko erabil ditzake hizlariak eta horietako batzuk markatzaileak izan ohi dira. Bestalde, aipatutako entzulearen irudi negatiboa babesteko ekintza kortesia negatiboarekin lotuta dago; hau da, hizlaria solaskideen nahiari aurka ez egiten saiatzen da. Hori lortzeko, aipatu berri dugunaren antzera, aurkakotasuna leuntzen duten elementuak erabiltzen ditu hizlariak. Kortesia positiboa, batez ere, elkarrizketa lagunkoi edo hurbiletan erabili ohi da eta kortesia negatiboa, ordea, errespetuzko jarrera izatearekin lotu ohi da. Hainbat autorek diotenez, ohikoa da hizkuntza indoeuoparretan bata zein bestea erabiltzea.

- (1) A: *Siéntese aquí..., conmigo...*
B: *Bueno / (muy) bien.*

Dena den, partikula biek gramatikalizazio nabaria izan dute. Izan ere, Catalina Fuentesek (1993) dioenez, ontasunaren balioaren galera progresiboa izan da elementu bietan eta eduki semikoa galtzeko bideari ekin diote. Hala ere, prozesu horretan aurreratuago dago *bueno* markatzailea, *bien*-ek, onarpenaz gain, diskurtso zatiaren edukiarekiko nolabaiteko balorazio positiboa ere adierazten du-eta; *bueno*-k, ordea, onarpen hutsa baino ez du aditzera ematen.

Euskarara etorritz, markatzaile deontiko modalaren funtzioa betetzeko aztergai dugun *tira* partikula erabiltzen da, eta esan dezakegu erabilera honetan bere esanahia gehiago hurbiltzen dela gaztelaniazko *bueno*-ra *bien*-era baino. Izan ere, euskarazko partikulak testuinguru horretan solaskidearen proposamenaren aurrean adostasuna adierazten baldin badu ere, adostasun maila hori apal samarra dela antzeman daiteke; hizlariak ez du gogo edota interes handirik erakusten eta bere erantzunean amore emate kutsua nabaritzen da. Ematen du beste erremediorik ez duelako onartzen duela kidearen eskaera, edota solaskidearen ekinaren aurrean amore ematea beste aukerarik gelditu ez zaiolako. Gainera, gaztelerazko *bueno* bezalaxe, *tira* partikula ere ezin da graduatu (**oso tira, *nahiko tira...*); bai, ordea, adostasuna adierazteko balio duen beste partikularen bat (*erabat ados, guztiz ados...*). Beraz, *tira* markatzailea bere horretan aurkituko dugu sarri, corpusetan aurkitutako hurrengo adibideetan bezalaxe⁴:

- (2) A: *Trasteak ez dira hainbeste. Eta gainera Felixek lagunduko dizu. Zoritxarrez, furgoneta libre dauka egun osoan.*
B: *(Etsita) Tira, zuk hain garbi ikusten baduzu...*
- (3) A: *Jesus! Ez da beharrezkoa, gizona; erietxean era guztietako probak eta azterketak egin zizkidaten...*
B: *Berdin dio. Askotan aldaketak izaten dira, eta hori oso leku arriskutsua da arinkerietan ibiltzeko.*
A: *(Etsita). Tira, ba. Zuk hala badiozu...*

⁴ Lan honetarako Goenkale telesailaren corpora erabili da nagusiki. Horrez gain, ETBko 'DBH' eta 'Kerman mintzalagun bila' saioak eta egilearen esperientzia ere baliatu dira.

Hala eta guztiz ere, ohikoa da funtzio honetan markatzaile hori beste partikula batzuekin batera agertzea. Horien artean, adostasuna gehiago markatzeko balio duten *ados*, *bai* eta *ez* partikulak dira ohikoenak. Hizlariak *tira* markatzaileari partikula horietakoren bat gehitzen dionean, esplizituago egiten du solaskideak adierazitakoa onartzeko erabakia, baina mantendu egiten da *tira*-k mezuari ematen dion desadostasun kutsua:

(4) A: *Miren, ordubete atzeratuko dugu afaria?*

B: *Tira, ados.*

(5) A: *Arazotan sartuta zaude? Urduri ikusten zaitut.*

B: *Tira, bai... oposaketengatik. Aste gutxi barru izango dira.*

(6) A: *Aizu, axola zaizu gaurkoan autoa zeuk eramatea?*

B: *Tira, ez. Eramango dut*

Aurreko hiru adibideetan, hizlariak berbalagunak egindako proposamena edo galdera onartzen ditu, eta, berez, horretarako aski izango litzateke erantzuna emateko *ados*, *bai* eta *ez* partikulak erabiltzea, hurrenez hurren. Hala ere, proposamen edo galderari erantzuteaz gain, bere zalantza edota desadostasun kutsua azaleratu nahi ditu hizlariak eta horregatik erabiltzen du *tira* markatzailea. Gainera, (6) adibidean, *ez* partikula ez du proposamenari ezezkoa emateko erabiltzen; solaskidearen galderari erantzuten dio eta bere proposamena txarto ikusten ez duela adierazteaz gain, onartu egiten du. Horrez gain, gaztelerazko *bueno* eta *bien* markatzaileetan izenondoaren eta aditzondoaren eduki semikoa galtzeko joera aipatu dugun bezalaxe, interesgarria litzateke euskarazko *tira* partikularen jatorria zein den azaltzea. Hori jakiteko hemen egindakoa baino ikerketa sakonagoa beharko litzatekeen arren, nabarmentzekoa izan daiteke partikula honek *tiratu* eta *tira egin* aditzekin izan dezakeen lotura. Orotariko Euskal Hiztegiak dioenez, bi aditz horiek norbaitek edo zerbaitek beste norbait edo zerbait beregana indar eginez erakartzea adierazten dute. Esan bezala, azterketa sakonagoa behar duen hipotesi hutsa baino ez baldin bada ere, *tira* partikulak ere izan dezake lotura horrekin, nolabaiteko indar-jokua adierazten baitu; zerbait –ideia bat– berengana erakartzeko indarra egiten du hiztunak eta horretarako oztopoa aurkitzen du –solaskidearen diskurtsoa–.

Bestalde, ikusi berri dugun erabileraz gain, desadostasuna adierazteko ere balio dute markatzaile deontiko hauek; hain zuzen ere, orain arte ikusitakoaren kontrakoa da erabilera hori. Aurreko diskurtso zatiarekiko edota testuinguru komunikatiboan modu inplizituan adierazitakoarekiko desadostasuna edo gaitzespena ematen du aditzera. Hizlariak ez du bat egiten solaskideak esandakoarekin eta hori adierazi egiten du; beraz, alde batera geratzen da arestian aipaturiko hizlarien arteko kortesia positibo hori:

(7) A: *El tuyo es mucho más cómodo.*

B: *Bueno, no te creas.*

(8) A: *Alfer-alferrik ari zarete. Ni ez naiz txorakeriatan ibiltzen den horietakoa.*

Ate horretatik irteten bazen, nire seme izateari utziko ziola esan nion.

B: *Tira, emakumea, ez zaitez horren egoskorra izan. Desiatzen zaude eta.*

Gaztelaniaz, *bueno* eta *bien* biak erabil daitezke funtzio honetarako, baina Zorraquinok eta Portolések diotenez, lehenak desadostasun maila baxuagoa erakusten du bigarrenak baino; *bueno*-k adierazten duen gaitzespena lausoagoa da eta *bien*-ek adierazten duena, irmoagoa. Euskaraz, berriz, *tira* partikula erabiltzen da funtzio honetarako ere, eta, aurreko funtzioan bezalatsu, honetan ere bere prozedurazko esanahia hurbilago dago *bueno* partikularenetik, solaskidearen diskurtsoarekiko urruntasuna edo berarekin bat ez egitea nabariagoa da eta.

Aipatutakoaz gain, markatzaile baten funtzioa zehazteko orduan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat ere badago: balore espresiboarena. Hizlariak bere diskurtsoa egituratzeko aukeratzen dituen hitzez gain, hitz horiek esateko moduak ere eragina dauka transmititu nahi duen mezua interpretatzeko orduan. Markatzaileekin ere gauza bera gertatzen da, eta beren funtzioa aldakorra izan daiteke hitz egitean ematen diogun intonazioaren arabera. Zorraquinoren eta Portolésen esanetan, *bueno* partikulak bi forma izan ditzake darabilkigun intonazioaren arabera: jarrera afektibo positiboa eta jarrera afektibo negatiboa. Lehenengoa partikularen lehenengo silaban ahotsaren tonua igoz eta gero jaitsiz adierazten da; bigarreneko, berriz, ahotsa maila baxuan mantentzen da une oro. Euskaraz ere intonazioak antzeko forma hartzen du.

Ildo horretatik, azaltzen ari garen kontrakotasunezko erabilera honetarako ere, hizkuntza batean zein bestean garrantzi berezia hartzen dute ezaugarri fonetikoek. Gaztelaniaren kasuan, *bueno* partikularekin, ahotsaren tonua igo egiten da gainerako elementuekin alderatuz, eta sarritan bikoiztu (*bueno, bueno*) zein hirukoiztu (*bueno, bueno, bueno*) ere egiten da. Errepikamen hori egiten denean, hitzetik hitzera ahotsaren tonua beherantz joaten da eta amaieran suspentsio tonema bat egiten da; hau da, azkeneko zatian intonazioak ez du ez gora, ez behera egiten; bere horretan mantentzen da:

(9) *A: Yo cazador... Nada de eso... Que cojo alguna que otra liebre, una perdicilla, pero nada...*

B: Bueno, bueno... Usted es muy modesto.

(10) *A: ¿Y tiene novio?*

B: ¡Bien! Pues no es poco antipática...

Euskararen kasuan ere ohikoa da *tira* partikularen errepikamena. Intonazioari dagokionez, berriz, igo beharrean, jaitsi egiten da partikularen lehenengo soinu bokalikoa eta bokal horren luzatzea ere ohikoa izaten da zenbaitetan (*tiira, tiira*). Gainera, errepikatutako atal batetik bestera intonazio aldaketa nabaririk egiten ez bada ere, azken atalaren amaieran kadentzia moduko bat egiten da batzuetan; hau da, intonazioak beherantz egiten du:

(11) *A: Kai deportibo bat egiteko asmoa dagoela entzun dut, ez dakit egia den.*

B: Kai deportibo bat! Zer nahi duzu, hemengo arrantzaleak, armadoreak eta kontserba-fabrikakoak makila biko yateak eta katamaranak erostea?! Tira, tira, Amaia!

(12) *A: Kaixo, Asier! Zer moduz gaur? Ze, asmatu al dezue zapata lotzen?*

B: Ez, baina lelokeriei kasurik ez egiten, bai!

A: Tira, tira, ez ezazu gaizki hartu, Asier...

Atal honekin bukatzeko, markatzaile deontikoen multzotik kanpo kokatu beharreko beste erabilera bat aipatuko dugu; hain zuzen ere, sakonean landuko ez dugun funtzio modal epistemikoarena. Zorraquinoren eta Portolésen esanetan, funtzio hori betetzen

duten markatzaileen bidez, diskurtsoaren egiazkotasuna edo ebidentzia neurtzen du hizlariak, eta, funtzio modal deontikoa betetzen duten markatzaileek ez bezala, adierazpenezko enuntziatuetan erabili ohi dira batez ere. Horren haritik, gaztelerazko *bueno* partikularen balio ohikoenetako bat balio auto-zuzentzailea da. Erabilera hori, sarritan funtzio metadiskurtsiboei⁵ egozten bazaie ere, markatzaile modal epistemikoei loturikoa da Zorraquinoren eta Portolésen aburuz. Izan ere, multzo honetako markatzaileek solaskidearekin ados egotea adierazten dute, eta hori estuki lotua dago *bueno* partikulak duen balio kontzesiboarekin. Markatzaile horren bidez, hizlariak mintzakidearekiko adostasuna aurreratzen du, modu honetan, azken horrek izan dezakeen ustezko objekzioren bati aurrea hartuz eta markatzailearen ostean nolabaiteko birformulazio bat eginez, entzuleak izan dezakeen iritzira zertxobait egokituz. Horrela hizlariak plazaratutako argumentuak edota ondorioak leundu egiten dira:

(13) A: *Nadie puede elegir un guión, ni yo ni nadie. Bueno, quizá Jane Fonda, y tampoco lo creo.*

(14) A: *...¿Cómo? ¿Que antes de las cinco de la mañana no aparece nunca por el hotel? Ya... ¿Algún recado? No, no... Bueno, mejor dicho sí, dígale... dígale... que se divierta.*

Euskarari dagokionez, interesgarria da aipatzea, dirudienez, *tira* partikula ez dela hain ohikoa funtzio honetarako, lan honetarako oinarri izan ditugun korpusetan nekez aurkitu baitugu markatzaile hori autozuzenketa edo birformulazioa egiteko. Bere ordeztan, *beno* eta *bueno* bera ere erabiltzen dira:

(15) A: *Nire hurrengo "kanpaina" Sobian izango da. Beno, aitak baimena ematen badit, jakina.*

(16) A: *Ikasteko desiatzen nago, baina; gogotik saiatuko naiz, hitza ematen dizut.*
B: *Borondate onik ez zaik falta, baina ez diat uste lan horretan nahikoa denik. Beno, oraingoz, ez diat ezetzik esango, baietzik ezta ere.*

⁵ *Hurrengo atalean landuko dugu funtzio metadiskurtsiboa.*

(17) A: *Gainontzean ere, jator ikusten zaio... Ginarena ere gainditu du... Hura Lasatarra da gero... (bat-batean hitz jarioa etenik). Beno, badakizu zer esan nahi dudan.*

(18) A: *Herriko ergelena ere enpleatu omen duzu.*

B: *Xanti?*

A: *Bai, tonto hori (Hanka sartu balu bezala) Bueno, baina niri oso ondo iruditzen zait, e.*

(19) A: *Imanol, jeloskor zaude?*

B: *Jeloskor, ni? Ez, ez da hori. (Etena) Bueno, pixka bat bai.*

Adibide hauek ikusirik, argi dago euskaraz ere ohikoa dela hizlaria esaldi bat egituratzen hasi eta diskurtsoaren erdian, esandakoaz neurriren batean damututa, moldaketa bat egitea. Horretarako, baina, *tira* partikula erabili beharrean, gazteleratik hartutako *beno* eta *bueno* markatzaileak dira gehienbat baliatu ohi direnak.

2.2. Funtzio besteratzailerak edo aldatzaileak

Aztergai dugun berbaldi markatzaileak bete dezakeen bigarren funtzioa besteratzailerak edo aldatzaileak da. Zorraquinok eta Portolésekin azaltzen dutenez, markatzaile hauek entzuleari zuzenduak dira oinarrian eta, batzuetan, entzuleaz gain baita hizlariari berari ere. Interjekzioen tankerako partikulak dira, eta, beraz, zeinu mota horien bereizgarri den distribuzio anitza eta aldakorra dute. Izan ere, gehienetan, edozein hizketa-ekintza edo ekintza-ilkutibo motatan erabil ditzakegu –adierazpenezkoak, galderak, aginduak etab.– eta sarritan harridurazko modulazioan agertzen dira.

Bestalde, markatzaile modal deontikoek bezalatsu, solaskidearekiko adostasuna adierazten duten ezaugarri pragmatikoak dituzte funtzio hau betetzen duten markatzaileek ere. Gainera, mintzakideen arteko kooperazio estrategiak ere adierazten dituzte. Dena den, badago markatzaile deontikoak eta besteratzailerak bereizten dituen ezaugarri nagusi bat: solaskidearekiko harremanean hizlariak zehazten duen ikuspegia

markatzeko funtzioa (lagunkoia, adeitsua...). Sarritan, markatzaile hauek lehen azaldutako kortesia erlazioen adierazleak dira (kortesia positiboa edo negatiboa), eta egoeraren arabera modu batean edo beste batean adieraziko du. Horrez gain, esanahiari dagokionez, markatzaile besteratzailleak operatzaileak izan ohi dira⁶.

Gaztelerari dagokionez, aipatu berri dugun erabilerarako *bueno* markatzailea aurkituko dugu. Funtzio modal deontikoan partikula honi esleitu diogun erabilerarekin alderatuz, oraingo honetan ez du aurretik egindako diskurtso zati batekiko adostasuna adieraziko. Esan dezakegu, nolabait, hasieran ikusitako funtzio modal deontikoaren eta atal honen ondoren ikusiko dugun funtzio metadiskurtsiboaren tarteko balorea duela erabilera honek. Markatzaile honen bidez, esaldiaren hasieran jarrita, hizlariak erantzun bat plazaratu eta solaskideak aurretik esandakoarekiko nolabaiteko desadostasuna, aurkakotasuna edo ez onartzea adierazten du. Hizlariaren irudi positiboa indartzen du eta berbalagunaren irudi negatiboa babestu. Haverkate-k (1994) dioenez, lotura pragmatikoa egiten du solaskidearen onartu gabeko enuntziatuaren eta kontrakotasuna adierazten duen hizlariaren iritziaren artean:

(20) A: *Para usted, entonces, tienen que ser sagradas las amistades.*

B: *Bueno, las amistades, ciertamente sí, claro. Es que hay amistades y amistades ¿no?*

(21) A: *Todo lo que está ocurriendo se ha desarrollado sin una revolución, merced a la Corona.*

B: *Bueno, eso ya lo dice hasta el gato.*

Horrez gain, hizlariak, sarritan, bere iritziaren kontrako norabidean egindako galdera bati erantzuna emateko ere erabiltzen du. Modu horretan, partikula honen bidez, hizlariaren galderatik ondorioztatzen duenarekiko aurkakotasuna arindu egiten du; bere desadostasuna erakutsi edo kontrako iritzia emango badu ere, erantzunaren hasieran markatzaile hau jarrita, kontrakotasun hori bortitzezia ez izatea egingo du:

⁶ Zorraquinok eta Portoléseek diotenez, diskurtso markatzaileen esanahian zenbait instrukzio mota bereiz daitezke. Horietako batzuek diskurtso zati bi edo gehiago lotzen dituzte eta beste batzuek, berriz, diskurtso zati bakarrarengan dute eragina. Azken horiek operatzaile izena hartzen dute.

(22) *A: Estaban en una especie de campaña de márketing, anunciando un producto nuevo...?*

B: Bueno... había que dar la imagen de que lo que vendría sería muy diferente de lo que había.

Euskarara etorrita, erabilera honetarako *tira* partikula sarritan topatuko dugu. Hurrengo adibideetan, gaztelerakoetan bezalaxe, hizlariak solaskideak esandakoarekin bat egiten ez duen iritzi bati bide emateko erabiltzen duela ikusiko dugu. Gainera, partikula honek hizlariari bere erantzuna hobeto neurtzeko aukera ematen dio; batez ere, mintzalagunak esandakoarekin ados ez dagoenean:

(23) *A: Zer, egunkaria irakurtzen?*

B: Ba, bai, hala da.

A: Eta zer, zaharrak berri, ezta? Seguru deus interesgarria ez dakarrela.

B: Tira, niri interesgarria iruditzen zait.

(24) *A: Nik ez nuen istilurik sortu nahi etxean, baina senarrak... senarrak ez nau ulertzen, Begoña.*

B: Tira, halako errietak, sesioak etxe guztietan izaten dira, Lourdes. Ez zaitetz zapuztu horregatik, biharko dena ahaztuta edukiko duzue.

(25) *A: Zer da ez dakian hori?*

B: Hain argazki onak egiten ote ditudan... Norbera izaten duk bere buruaren epailerik kaskarrena, eta...

A: Tira, ez hadi apala izan... Niri oso onak iruditzen zaizkidak hire azkeneko lanak.

Horrez gain, gazteleraz bezalatsu, euskaraz ere galderen aurrean aurkakotasuna adierazten duten erantzunen sarrera gisa erabiltzen da:

(26) A: *Urduri, ezta?*

B: *Tira... Ez dakit hitzik egokiena den nire barneko atximurkada hau izendatzeko.*

(27) A: *Zer esatea nahi duzu, Karlos? Egia esan, nik ez dut oso ondo konprenitzen zergatik jokatzten duten hain zorrotz zurekin, baina...*

B: *Konfiantza izpirik ez dutelako nigan?*

A: *Tira, zure ama medikua da, izango ditu bere arrazoiak jokatzten duen moduan jokatzeko.*

Azkenik, markatzaile besteratzailen erabilera hau betetzeko euskaraz ditugun ordainekin bukatzeko, nabarmendu beharra dago, *tira* partikulaz gain, gazteleratik hartutako *beno* eta *bueno* partikulak erabiltzea ere oso ohikoa dela -markatzaile deontiko modaletan ikusi duguna bezalaxe-:

(28) A: *Baina orain amatxoren ondora itzuli da berriro, ez da, Bruno?*

B: *Denbora gutxirako: eskolan hasi behar du aurki.*

A: *Beno, eskola ez da egun osokoa izaten, bazkaltzeko eta...*

(29) A: *Ba, bai, ez begiratu horrela!*

B: *Nola nahi duk begiratu? Hik ez duk kolpe zorririk jo hire bizi guztian.*

A: *Beno, gauza guztiek zaukatek hasiera bat.*

(30) A: *Benetan... hori nahi duzu?*

B: *Jakina. Horrela, alabaren kontura biziko gara. Lehenago jubilatuko gara. Gaizki iruditzen al zaizu?*

A: *Beno... Proiektu hobeak dauzkat nik.*

(31) A: *Neguko beroki bat edo erosi nahi du Arantzak. Niri ere txamarra bat komeni omen zait. Honekin ez al nago ba ondo, Josune?*

B: *Bueno, horrek bere onenak eman ditu.*

2.3. Funtzio metadiskurtsiboa

Funtzio metadiskurtsiboaren zeregin nagusia elkarriketa egituratzea da; hizlariak funtzio hori betetzen duten markatzaileez baliatzen dira beren diskurtsoa eraiki eta antolatzeko. Oro har, elementu horiek berez beste funtzio batzuk bete ohi dituzten elementuak izaten dira -arestian ikusitako funtzio modala edota besteratzatzailearekin lotutakoa-, eta beren esanahian aldaketa jasan eta beren erabilera informazioaren konfiguraziora edota diskurtsoaren egituraketara bideratzen da. Horrez gain, markatzaile hauek enuntziatu autonomoak osatzen dituzte, eta aurretik ikusi ditugun erabileretan baino eten nabariagoak egiten ditu hiztunak bere diskurtsoan partikula hauen ostean. Gainera, beste erabileraren batean ikusi dugunaren kontrara, erabilera metadiskurtsiboan ez da ohikoa partikularen errepikamena (*tira-tira, bueno-bueno*).

Bestalde, aipatu beharra dago jarraian landuko dugun funtzio metadiskurtsibo hau hertsiki lotua dagoela funtzio fatikoarekin. Izan ere, batzuetan, esanahi edo informazio trukaketari baino, lotuago egoten dira komunikazio bideari berari, hiztunen arteko kontaktua erregulatzen dute eta.

Azkenik, funtzio metadiskurtsibo honen barruan aztergai ditugun partikulen deskribapen zehatzari ekiteko, berriz ere aipatu beharra dago partikula hauek duten erabilera anitza. Izan ere, orain arte ikusi dugunez, euskarako *tira*-k zein gaztelarako *bueno* eta *bien* partikulek hainbat funtzio bete ditzakete, berbaldi markatzaileen barneko zenbait multzotan sailkatu ditugunak. Bada, azkeneko multzo honen barruan ere, partikula hauek askotariko erabilerak izan ditzaketela ikusiko dugu: *mezua jaso izana adieraztea, hizlari txanda aldaketa, gai aldaketa, elkarriketaren amaiera, gaiaren jarraipena*, etab. Gainera, horiek elkarrekin lotura zuzenean egon daitezkeela ere ikusiko dugu. Izan ere, guztiek dute abiapuntu komuna: Zorraquinok eta Portolésesek diotenez, aztergai ditugun partikulak erreaktiboak dira; hau da, zerbaiten aurrean eginiko erreakzioa edo erantzuna islatzen dute. Ikusiko dugunez, zerbait hori esplizitua (solaskide batek esandako zerbait) edo inplizitua (egoera komunikatibo jakin bat) izan daiteke. Hortaz, erabilera horiek azaldu eta euskaraz eta gaztelaniaz funtzio horietarako erabili ohi diren markatzaileak ikusteari ekingo diogu.

Lehenik, markatzaile hauek mezua jaso izana adierazteko duten gaitasuna azalduko dugu. Solaskideetako batek esan duena entzun ostean, hizlariak, partikula hauetako baten bidez, mezua jaso izana adierazten du. Horretarako, gaztelaniaz *bueno* eta *bien* partikulak erabili ohi dira. Oro har, biek dauzkate antzeko erabilerak, baina lehen ere esan dugunez, lehenak jasan duen gramatikalizazioa handiagoa da bigarrenarena baino. Izan ere, *bien* markatzaileak, diskurtsoa antolatzeaz gain, solaskideak esandakoaren balorazioa egiteko ere balio du, eta horrek erakusten du oraindik ere mantentzen dituela *bien* adberbio modalaren zantzuak:

(32) *A: No puedo más con esta situación.*

B: Bueno/bien, te entiendo.

(33) *A: ¡Pili, que las niñas van a merendar!*

B: Bueno, Adela... ¡Vamos a la parte opuesta de San Saturio, la que queda cerca de los Arcos de San Juan

Dena den, gehienetan hizlariaren ekarpena ez da mezuaren ulermen hutsa adieraztera mugatzen, eta *bueno* edo *bien* markatzaileen bidez beste operazio diskurtsiboren bat ere ematen du aditzera. Horien artean ohikoena txanda aldaketa dela esan dezakegu, batak bestea dakar eta; hizlariak bere solaskideak esan duena entzun ostean, markatzaile hori erabiltzen du informazioa jaso eta ulertu duela adierazteko eta, horrez gain, bere diskurtsoa egituratzen hasteko lehenengo pausoa ematen du. Beraz, (32) eta (33) adibideetan ikus dezakegunez, informazioa jaso izana jakinaraztearekin batera, bere hitz egiteko txanda hartzea ahalbidetzen du hizlariak markatzailearekin.

Euskarari dagokionez, *tira* partikulak ere badu mezu bat jaso izana adierazteko erabilera eta, horrekin batera, hitz egiteko txanda hizlari batetik bestera igarotzea ere eragiten du, gazteleraz ikusitakoaren parera:

(34) *A: Eusebio, mila esker zure laguntzagatik.*

B: Tira, nik ez dut ezer egin...

Bi erabilera horiez gain, euskarazko zein gaztelerazko markatzaile hauek beren funtzio metadiskurtsiboaren barruan badute beste ohiko erabilera bat ere: gai edo sekuentzia

aldaketa. Sarritan, solaskideak esandakoaren erantzun gisa nahiz hizlariak berak bere diskurtsoaren barnean sekuentzia haustura bat adieraz dezake eta, markatzaile horren ostean, diskurtsoa beste noranzko batetik bideratu:

(35) *A: Han llegado ya esos paquetes, me parece...*

B: Bueno. Oye, que se me había olvidado decirte una cosa...

(36) *A: A mí lo terrorífico me da una risa... Bueno... ¿Qué hacemos?*

(37) *A: ¿Cómo está vuestra familia, Alteza?*

B: Muy bien, mi general. Gracias.

C: Bien. Tengo que anunciaros algo.

Gaztelerazko adibide horietan ikus dezakegunez, hizlariak indarrean dagoen gaia amaitutzat eman eta beste bat mahaigaineratzen du. Horretarako, (35) eta (37) adibideetan, lehendabizi, mintzakidearen mezua ulertutzat eman, inplizituki txanda aldaketa ere adierazi eta gaia aldatzen du. (36) adibidean, ostera, hizlariak berak esandakoaren ostean gaia amaitutzat eman, eta, eten txiki bat egin ostean, gai batetik besterako aldaketa markatzen du.

Prozesu bera antzeman daiteke euskarazko hurrengo adibideetan:

(38) *A: Apalegi jokatu zenuen lehengoan*

B: Apalegi?

A: Apalegi, bai, konkistatzaile kaxkarra zirela sinestarazi nahirik.

B: Tira. Zerk ekarri zaitu ona?

(39) *A: ... ustela tokatu hura ere: ez zuen behar bezala hozten, eta izozkia urtu egiten zen. Alda dezagun gaia, faborez, gogoratze hutsarekin gaixotu egiten naiz eta.*

B: Ulertzekoa da: dirua egitera joan, eta jarritakoa galdu.Tira, esadazue zer berri dagoen herrian, izango dugu zerbait eta.

Aurreko erabilera horrekin lotuta, elkarrizketari amaiera emateko ere erabiltzen dira aztergai ditugun markatzaileak. Kasu horietan, sekuentzia aldaketa ere nabariagoa da aurretik aztertutako kasuan baino, gaiaz gain hizlariak elkarrizketa bera ere amaitutzat ematen du eta. Gaztelaniaz, funtzio honetarako ohikoagoa da *bueno* erabiltzea *bien* erabiltzea baino. Zorraquinok eta Portolések diotenez, bigarren partikula horrek kutsu formalagoa dauka, jarrera hotzagoa edo urrunagoa erakusten du, eta hizketaldi mota jakin batzuetan erabili ohi da batez ere; esate baterako, kazetari batek egindako elkarrizketa batean edota inkesta batean. Beraz, solaskideek duten rolak baldintzatu egiten du partikula bat ala bestea erabiltzea.

(40) A: *Me ha gustado mucho conocerte.*

B: *Para mí ha sido un honor, señora.*

A: *Bueno, "chiquitica", a ver si vienes a verme y me dices qué día vienes a comer con Joaquín.*

(41) A: *Bien. Ya hemos terminado.*

Euskaraz, berriz, ohikoa da *tira* markatzailea elkarrizketari amaiera emateko erabiltzea, testuingurua edozein delarik ere:

(42) A: *Garai berriei leku egin behar zaie, eta esan dezadan bide batez datozen garaiak ez direla zuek uste bezain beltzak.*

B: *Tira, Margarita, ordua etorri zaigu gainera. Goazen gure lanera. Adio.*

(43) A: *Lan hau ez da begiratu batera dirudien bezain erraza, ezta?*

B: *Ez, ez da. Baina banekien hainbeste honetan hasi nintzenean. Tira, ba, Andoni: zorte on! (Bostekoa ematen dio)*

Bide horretatik, aipatzekoa da euskaraz zein gazteleraz ohikoa dela *bueno* markatzailea agur gisa erabiltzea; sarritan, beste ezer gehitu gabe. Hori, batez ere, topo egin berri duten eta elkarrizketa hasteko asmorik ez duten hiztunen artean gertatu ohi da:

(44) A: *Bueno!*

B: *Bueno, agur!*

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago gaztelerazko *bien* eta euskarazko *tira* partikulek ez dutela funtzio hori betetzeko balio.

Bestalde, elkarrizketa gai jakin bati edo elkarrizketari berari amaiera emateko erabilerarekin lotuta, aipatzekoa da sarritan erabilera horretan *baina* aurkaritzako lokailuaren ondotik agertu ohi dela euskarazko *tira* partikula –gazteleraz ere ohikoa da *pero* eta *bueno* partikulen uztardura hori–. Modu horretan, hizlariak egoeraren balorazio moduko bat egiten du; berak nahi zuenaren edo buruan zuenaren aurkako ideia edo ekintza bat onartu behar izan duela adierazten du, egoerak edo solaskideren batek horretara bideratuta, edota ondoren kontatuko duenari garrantzia kentzen dio:

(45) A: *Kaixo, Amaia. Mainerren bila nator. Zer, jaitsi al da behera?*

B: *Ez, baina aurki izango duzu hemen. Ordu honetan jaisten da-eta.*

A: *Elkarrekin gosaltzekotan geratu ginen hemen. Baina tira, kafe bat hartuko dut haren zain nagoen bitartean.*

(46) A: *Eser zaitez, kontadazu dena!*

B: *Ez dago kontatzeko asko. Ez dakit zer baino urduriago joan naizen, baina, tira, nola edo hala aurkeztu diet proiektu hori.*

Adibide horietan ikus dezakegunez, puntuazioari dagokionez desberdintasun txiki bat nabari da bi esaldien artean, (46) adibidean koma ageri baita *baina* lokailuaren eta *tira* markatzailearen artean. Esaldiak ahoz esateko orduan desberdintasun hori markatzen saiatzen bagara, konturatuko gara (45) adibidean unitate fonetiko beraren parte direla aipatutako bi elementuak. Hurrengo adibidean, ostera, etena egiten da bi elementuen artean eta bereizita ahoskatzen ditugu, eta, gainera, *baina*-ren bukaerako bokala zertxobait luzatzea ere ohikoa izaten da.

Halaber, elkarrizketa bati hasiera emateko funtzioa ere izan dezakete markatzaile hauek. Hala ere, markatzaile hauek erreaktiboak direnez, erabilera hori egoera jakin batzuetan baino ez da gertatzen, testuinguru estralinguistikoak baldintzatzen baitu. Hortaz, funtzio

hori bete ahal izateko, beharrezkoa da aurretik hizlarien artean gutxieneko kontaktu bat egotea edota, bestela, egoera komunikatibo zehatz batean izatea. Esate baterako, arraroa litzateke bi ezezagunen arteko elkarrizketa *bueno*, *bien* edo *tira* markatzaileen bidez hastea. Aurretiaz elkar ezagutzen duten eta bi pertsonaren artean, ordea, izan duen azken kontaktua edo elkarrizketa oraindik gogoan baldin badaukate, ohikoagoa izan daiteke elkarrizketari modu horretan ekitea:

(47) A: *Tira, etorri zara azkenean!*

Adibide horretan, beste uneren batean izan duten elkarrizketari jarraipena ematen dio hizlariak, tartean denbora igaro bada ere, eta jarraipen hori emateak ahalbidetzen du *tira* markatzailearen erabilera. Fenomeno hori ohikoa da gainerako hizkuntzetan ere, eta, hizkuntzaren arabera, baliabide bat edo beste erabiliko da horretarako. Esate baterako, gaztelaniaz sarritan *que* partikula erabiltzen da solasaldien arteko lotura hori adierazteko:

(48) A: *¡Que al final has venido!*

Euskarazko (47) adibidean bezalatsu, (48) adibide honetan elkarrizketa horrela hasteak aurretik solaskideen arteko beste elkarrizketa bat egon dela adierazten digu eta, segur aski, baita gai berberaren inguruan hitz egin dutela ere.

Bestalde, Zorraquinok eta Portolések jasotzen dutenez, testuinguru komunikatibo jakin batzuetan, hiztunek aurretik inolako kontakturik izan ez badute ere, onargarria izango litzateke *bueno* zein *bien* partikularen bitartez elkarrizketa hastea. Esate baterako, polizia agente bat horrela zuzen dakioke arau-hausteren bat egin berri duen pertsona bati:

(49) A: *Bueno, señora, pero ¿es que no ha visto usted el semáforo en rojo? ¿Por qué no ha parado el coche?*

Adibide horretan, polizia agenteak bere lanpostuak esleitzen dizkion autoritatea eta herritar orori zuzentzeko ahalmena baliatzen ditu, eta ez da beharrezkoa aurretik bien

arteko elkarrizketarik egotea. Gainera, *bueno* markatzaileak kutsu adeitsua dauka eta ahuldu egiten du mezuaren kutsu negatiboa; samurtu egiten du poliziaren errieta.

Euskaraz ere, egoera komunikatiboaren arabera ohikoa izan daiteke elkarrizketa *tira* partikularen bitartez hastea. Esate baterako, beraien artean hitz eta pitz ari diren ikasleen arreta bereganatu eta eskolari hasiera emateko, partikula hori erabil dezake irakasle batek:

(50) A: *Tira, hasi egingo gara.*

Egoera horretan, irakaslearen eta ikasleen artean elkarrizketa aktiborik ez dagoen arren, irakasleak moztu egiten du sekuentzia, eta hitza zein ikasleen arreta bereganatzeko saiakera egiten du.

Gainera, lehen gazteleraz emandako adibidearen oso antzekoa da honako hau ere; polizia agente batek herritar baten aurrean horrela hasten du elkarrizketa:

(51) A: *Tira. Ea lortzen dugun hari-muturrak elkartzea,, ikusten hasten garen zer arraio gertatu zen ditxosozko hilketaren gauean. Hire lagunekin egon omen hintzen, bai, baina ez gau osoan...*

B: *Halaxe da*

Azkenik, funtzio metadiskurtsiboekin amaitzeko, markatzaile hauek informazioa bildu eta elkarrizketari jarraipena emateko ere balio dute. Normalean, elkarrizketaren haria zertxobait desbideratu ostean berriz ere lehengora bideratzeko erabiltzen ditu hizlariak. Gazteleraz *bueno* zein *bien* erabili ohi dira eta euskaraz ohikoa da *tira* partikula erabiltzea.

(52) A: *Me acuerdo que me hablaba una vez de Antonio Machado, que como usted sabe era muy descuidado, y dicen que no se lavaba, lo que en verdad no importa nada para juzgar a un gran poeta, aunque quizá hubiera sido mejor que se lavase, ¿no? ... Bueno, pues, Juan Ramon me hablaba de eso y decía...*

(53) *A: Bazeneki zenbat kostatu zaidan lana aurkitzea!*

B: Garai latzak dira, ezta?

A: Batez ere batzuentzat. Tira, kontua da badudala lana... eta lanerako gogoia, akabo potro-jorran ibiltzea!

Gaztelerazko zein euskarazko adibideetan ikus daitekeenez, hizlariak markatzaile metadiskurtsiboa darabil gaia berak nahi duen lekutik bideratzeko. (52) adibidean, bere kabuz galdu du haria hizlariak, buruan zuena kontatzeko bidean, xehetasunak ematen hasi eta desbideratu egin baita. (53) adibidean, berriz, solaskideak egindako galderari erantzun ostean gaiari jarraipena emateko baliatu du hizlariak markatzailea.

3. Hizketa-ekintzak

Deskribapen lan honetan ikusi dugunez, aztertu ditugun diskurtso-markatzaileen erabilerak oso ugariak dira, eta testuinguru komunikatiboari hertsiki lotua dago horiek betetzen duten funtzioa. Ildo horretatik, arestian aipatu dugunez, markatzaile hauek era guztietako hizketa-ekintzetan aurki ditzakegu funtzio horietakoren batean, eta, jarraian, egingako deskribapen lan hau osatzeko asmoz, gai horretan zertxobait sakontzeari ekingo diogu.

Ezer baino lehen, beharrezkoa deritzot hau hobeto ulertzen lagunduko diguten bi kontzeptu azaltzeari: lokuzio-ekintza eta ilokuzio-ekintza. Hizketa-ekintzaren teoria landu zuen John Searle-ren (1962) arabera, lokuzio-ekintzak zentzu eta erreferentzia jakina duen enuntziatu baten ekoizpena dira; hotsa artikulatu, morfemak bildu eta esanahia egituratzearen prozesua bera. Ilokuzioa, berriz, hiztunak esaten duen horrekin burutzen duen ekintza da (galdetzea, mehatxatzea, eskatzea, agurtzea, zorientzea, ohartaraztea...). Hortaz, esan dezakegu lokuzio-ekintza batek ilokuzio-ekintza bat dakarrela beti berarekin, zerbait esate hutsak beti izango baitu asmo edota helburu bat, hori edozein delarik ere.

Alde horretatik, interesgarria izan daiteke aztergai dugun *tira* markatzailea ilokuzio-ekintza horietara zer moduz egokitzen den ikustea, eta, beraz, aipatutako ekintza horiek oso ugariak izan daitezkeenez, horietako batzuk hautatuko ditugu. Hauek izango dira ikusiko ditugunak: adierazpena, proposamena, ohartarazpena, agindua, barkamena eskatzea eta zorientzea.

- Adierazpena: adierazpenaren xedea baiezko edo ezezko informazio bat bere horretan transmititzea da, eta deskribapenean emandako adibideetan ikusi dugunez, ohikoa izaten da halakoan ostean *tira* partikula erabiltzea:

(54) A: *Gaur ez dut etxean afalduko.*

B: *Tira, ondo da.*

- Proposamena: aurrekoa bezalaxe, oso ohikoa izaten da proposamen bati erantzuteko *tira* markatzailea erabiltzea, batez ere ezezko erantzuna leuntzeko helburuarekin:

(55) *A: Nora joango gara?*

B: Nire etxean ez dago inor.

A: Tira... nahiago dut buelta bat eman.

- Ohartarazpena: norbaiti informazio bat zerbaiten inguruan ohartarazteko asmoz ematen diogunean ere, ohiko da solaskideak *tira* partikula erabiliz erantzutea:

(56) *A: Hodei beltzak datoz.*

B: Tira, euritakoa hartuko dut badaezpada.

- Agindua: agindu bati *tira* partikularekin erantzutea hemen aztertutako gainerako lokuzio-ekintzetan baino ez ohikoagoa izan daitekeen arren, gertatzen da batzuetan. Egoera honetan erabiltzen denean, normalean amore ematearekin lotuta egoten da; hau da, solaskide batek zerbait agitzen dio besteari eta azken horrek agindua bete nahi ez badu ere, akabuan amore ematen du. Orduan, bere desadostasuna erakusteko, *tira* markatzailea erabiltzen du:

(57) *A: Ez dizut berriz esango, ekarri telebistaren mandoa!*

B: Tira... hartu.

Hala ere, amore emateko kutsu horrek, normalean bederen, aurretik solaskideen arteko eztabaida edo iritzi kontrajarriren bat egotea eskatzen du, eta testuinguru horretan ohikoa da kideetako batek amore eman eta *tira* markatzailearen bidez aginduaren onarpena adieraztea. Testuinguru hori beharrezkoa da markatzailearen erabilera, nolabait esateko, justifikatuta egoteko eta, testuinguru hori egon ezean, mintzakideetako batek besterik gabe agindua emanaz gero, arraro geldituko litzateke beste mintzakideak zuzenean modu horretan erantzutea:

(58) *A: Joan, azkar!*

B: Tira, banoa.

- Barkamena eskatzea: barkamena eskatzeko zein barkamena eskatu digun norbaiti erantzuteko erabili dezakegu *tira* partikula. Lehenengoan, hizlariak solaskideari egin dion kalteaz konturatu baina hori onartzea kostata, erdi derrigortuta edo egiten dio barkamen eskaera eta horri markatzailea jartzen dio aurretik:

(59) *A: Min egin didazu.*

B: Tira, barkatu.

Bigarrenean, solaskideak barkamena eskatu ostean, kideak egindako kalteari pisua kentzeko erabiltzen da maiz:

(60) *A: Sentitzen dut, benetan.*

B: Tira, lasai. Ez da ezer izan.

- Zoriontzea: aurreko puntuan azaldutakoaren antzekoa izan daiteke *tira* partikularen erabilera norbait zoriontzearekin lotuta dagoenean ere. Izan ere, ilokuzio-ekintza honetan ere norbait zoriontzeko zein zoriondu gaituen norbaiti erantzuteko balia dezakegu. Lehenari dagokiona adibide batez azaltzarren, bi kideren arteko lehiaketa bat galdu duenak beste kidea zoriontzeko beharra senti dezake, benetan horretarako gogorik ez baldin badauka ere. Egoera horretan, bere gogo falta agertaraziz emango dizkio eskerrak, berotasun handirik gabe:

(61) *A: Tira, zorionak.*

Bestalde, zorionak eman dizkion norbaiti erantzuteko ere erabil daiteke *tira* markatzailea, eta egoera horretan umiltasun kutsua adieraz dezake, lortu duenagatik izan dezakeen meritua leuntzeko:

(62) *A: Zorionak!!*

B: Tira, mila esker.

Ilokuzio-ekintza horiek ikusirik badirudi edozein testuingurutan erabil dezakegula *tira* markatzailea, baina badago bere erabilera okerra edo, behintzat, ez ohikoa den kasuren bat ere; zati-galderei erantzuna emateko orduan, hain zuzen. Orain arteko adibideen arteko hainbatetan *tira* markatzailea galderei erantzuteko erabili bada ere, galdera horiek guztiak bai/ez erakoak izan dira. Zati-galderekin, ordea, desberdina da kontua, eta hurrengo adibidean ikus dezakegunez, arraroa litzateke era horretako galdera bati modu honetan erantzutea, markatzailearen ondoren galderaren erantzuna eman zein ez:

(63) *A: Noiz etorriko zara etxera?*

B: ??Tira.

(64) *A: Zer daukagu gaur bazkaltzeko?*

B: ??Tira, indaba gorriak.

Ikus dezakegunez, ezohikoa da erabilera hori eta solaskideen arteko komunikazio fluxuan arazoren bat egon dela pentsatzera eraman gaitzake. Dena den, hizlariak mintzalagunak egindako galdera erantzuteko gogorik izan ez eta bere asmoa galdera hori erantzuteari iskin egitea baldin bada, ohikotzat har dezakegu bere erabilera, lehen aztertutako funtzio metadiskurtsiboan, hain zuzen ere:

(65) *A: Noiz arte jarraituko beharko dugu horrela?*

B: Tira-tira, utzi txorakeriak eta ekin lanari.

4. Ondorioak

Lan honen helburua euskarazko *tira* partikularen deskribapena egitea izan da eta, horretarako, lehendabizi, diskurtso markatzailea dela zehaztu dugu. Esanahi denotatiborik ez duela ikusi dugu eta bere esanahia prozedurazkoa dela; hau da, esanahi kontzeptuala duten hizkuntza elementuek (aditzak, izenak, izenondoak...) adierazten dutena modu jakin batean prozesatzea ahalbidetzen duela, eta, beraz, diskurtsoaren antolaketan duela eragina. Gainera, diskurtso markatzaileen artean hainbat sail bereizten direla ikusi dugu, eta, berbaldi markatzaileen barruan sartu dugu *tira* partikula. Azaldu dugunez, berbaldi markatzaileek elkarrizketa bateko kideen arteko harremana adierazten dute eta kide horiek esandakoaren inguruan duten jarrera zehazten dute.

Jarraian, ahozkotasanari hertsiki lotutako markatzaile honen deskribapen lanari ekin diogu. Horretarako, aurretiaz partikula honen inguruko ikerketa sakonik egin ez denez, beste hizkuntza batzuetara jo dugu erreferentzia bila, eta Zorraquinok eta Portolésesek gaztelerazko *bueno* eta *bien* markatzaileen inguruan egindako azterketa izan dugu oinarri euskarazko *tira*-k izan ditzakeen funtzioak zehazteko. Prozesu horretan ikusi dugunez, ezin dugu *tira* markatzailea funtzio zehatz batetara mugatu, bere erabilera aniztasuna dela eta, ugari baitira bete ditzakeen funtzioak. Horrexegatik, beste hizkuntzetan baliokide perfektuak aurkitzea ere lan zaila da, unean-unean betetzen duen funtzioaren arabera bat edo beste izango baita berarekin parekatu dezakegun partikula. Funtzio horien artean deontikoa, besteratzzailea eta metadiskurtsiboa nabarmendu ditugu. Lehenengoari dagokionez, zuzentzeko esaldien aurrean hizlariak solaskidearen proposamena, eskaria edo agindua onartu ala alboratzeko erabiltzen da *tira* markatzailea, eta onarpenaren kasuan amore emateko kutsua izan dezakeela ikusi dugu. Gainera, kortesia positiboa indartzen duela ere ikusi dugu, solaskideak hizlariarekiko duen irudi positiboa mantentzeko. Bestalde, funtzio besteratzzaile edo aldatzaileari dagokionez, *tira* markatzaileak hizlariak solaskidearekiko duen jarrera zein ikuspegia markatzeko duen gaitasuna ikusi dugu. Azkenik, funtzio metadiskurtsiboarekin partikula honek elkarrizketa egituraketari egiten dion ekarpena ikusi dugu. Horren barruan, partikula honek askotariko erabilerak izan ditzakeela ere ikusiko dugu, testuinguruaren arabera: *mezua jaso izana adieraztea*, *hizlari txanda aldaketa*, *gai aldaketa*, *elkarrizketaren amaiera*, *gaiaren jarraipena*, etab. Horrekin lotuta, funtzio

fatikoarekin harreman zuzena duela ere aipatu, esanahi edo informazio trukaketari baino hiztunen arteko kontaktua erregulatzeari jartzen diolako arreta.

Amaitzeko, *tira* markatzaileak hizketa-ekintza desberdinetara moldatzeko duen gaitasuna aztertu nahi izan dugu, eta ia edozein ilokuzio-ekintzatan erabil daitekeela ikusi dugu: adierazpena, proposamena, ohartarazpena, agindua, barkamena eskatzea eta zoriontzea etab. Hala ere, zati-galderei erantzuteko orduan, hizlariaren asmoa galderari iskin egin ez eta galdera erantzutea baldin bada, markatzaile honen erabilera ez ohikoa dela ondorioztatu dugu.

Lan honi amaiera emateko, garrantzitsua iruditzen zaigu partikula mota hauek duten garrantzia nabarmentzea, esanahi denotatiborik ez baldin badaukate ere, ezinbestekoak direlako diskurtsoa eraikitzeko orduan, batez ere ahozko hizkuntzan. Hortaz, interesgarria litzateke bide honetatik jarraitu eta partikula mota hauen inguruko ikerketa lan gehiago egitea.

5. Bibliografia

- Brown, P. eta Levinson, S., 1978, "Universals in Language Usage: Politeness Phenomena". In E. Goody (Ed.): *Questions and Politeness: Strategies in Social Interaction*, 56-310.
- Fuentes Rodriguez, C., 1993, "Comportamiento discursivo de "bueno", "bien", "pues bien". ELUA. Estudios de Lingüística, 205-221.
- Garcia-Azkoaga, I., 2013, "Birformulatzailer urruntzaileak: euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia osatzeko atariko azterketa", *Fontes Linguae Vasconum*, XLV, 116, 191-208.
- Martí M., 2008, "Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos". Madril. Arco Libros.
- Martin J. Edley, 2010, "Linguistic Perspectives on English Grammar: A Guide for EFL Teachers". Information Age Pub.
- Martín Zorraquino, M^a A. eta Portolés, J., 1999, "Los marcadores del discurso". In I. Bosque eta V. Demonte (arg.): *Gramática descriptiva de la lengua español*. Madril: Espasa. Vol. III, 4051-4213.
- Portolés, J., 2016, "Los marcadores del discurso". In Javier Gutiérrez-Rexach (ed.): *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, 1, Londres / New York, Routledge, 689-699.

Hiztegiak:

Adorez hiztegiak: [<http://www.bostakbat.org/azkue/>]

Elhuyar hiztegia: [<https://hiztegiak.elhuyar.eus/>]

Euskalterm: [<https://www.euskadi.eus/euskalterm/>]

Euskaltzaindiaren hiztegi batua:

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&lang=eu&view=frontpage&Itemid=410]

Orotariko euskal hiztegia:

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ohberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu]

Uzei: [<https://uzei.eus/zerbitzuak-eta-produktuak/produktuen-katalogoa/sinonimoen-hiztegia/>]